

# PARTAIDETZA AZTERGAI: NAHI, AHAL, JAKIN

## SOLASALDI ZIKLOA



## AHAL: PARTE HARTU, NAHIA ETA EZINA

PARTAIDETZA AZTERGAI: NAHI, AHAL, JAKIN. SOLASALDI ZIKLOA hiru saioek osatzen dute.

Lehenengo saioa, NAHI, PARTE HARTU ALA EZ PARTE HARTU, HORI DA GAKOA Azpeitiko San Agustinen ospatu da urtarrilaren 26an. Partaidetzan konfiantza eta konfiantza-eza sortzen duten gakoak azalerratu eta norberaren esperientziaren eremutik hitz eginez horietan sakontzea izan du helburu lehen saioak.

Bigarren saioa, AHAL, PARTE HARTU NAHIA ETA EZINA, Donostiako Miramar jauregian ospatu da otsailaren 25ean. Saio honen helburua parte hartu ahal izateko baldintzetan, egiturazkoak zein pizgarrietan, arakatzea izan da.

Azkenik, hirugarren saioa, JAKIN: PARTAIDETZA-ON izenburukoa martxoaren 24ean ospatuko da Donostiako Okendo Kultur etxean. Saio honek Partaidetza digitalak eskaintzen dituen aukera eta mugetan arakatzea izango du helburu.

## JARDUNALDIA

### MEMORIA (2023/02/25. MIRAMAR JAUREGIA, DONOSTIA)

#### EGITARAUA

9.30 – 10.00	Harrera
10.00 – 10.30	Aurkezpena. AHAL. Aukerak eta baldintzak arakatuz
10.30 – 11.50	AHAL, parte hartzea bultzatzeko nola sortu aukerak eta baldintzak. Mahai ingurua bost herritarrekin eta solasaldia
11.50 – 12.12	Atsedena
12.10 – 13.30	Egungo partaidetza aztergai. Zein ezaugarri ditu momentu honetan partaidetzak? Ponentzia GFA eta aholkularitzen eskutik eta talde hausnarketa
13.30 – 14.00	Goizeko saioaren ondorioak eta itxiera
14.00 – 15:30	Bazkaria
15.30 – 15.45	Arratsaldeko programaren errepaso
15.45 – 17.30	AHAL izateko, baldintzak eta formulak. Partaidetza errazteko, bermatzeko baldintzak eta formulen aukerak, arriskuak eta kontraesanak. Ponentzia Irene Alonso Toucido (Federation for Innovation in Democracy – Europe), mahai-ingurua (Gari Lekuona eta Antxon Gallego) eta solasaldi irekia
17.30 – 18.00	Ondorioen aurkezpena eta jardunaldiaren itxiera

## AURKEZPENA

---

GFAko Herri Partaidetza Zuzendariak, Mikel Pagolak, ongietorria eman, Euskal Herriko Unibertsitateko Uda Ikastaroak fundazioaren (UIK) elkarlana eskertu eta ekimen honen testuinguru eta helburuak azaldu ditu. Partaidetza aukera, baldintza, eskubide eta betebeharreran eragin duten eta eragiten ari diren gakoien inguruko solasaldi ireki eta publikoak dira antolatutako hiru saioak. Helburu nagusia da «gaur egungo errealitatean eta Gipuzkoako testuinguru zehatzean partaidetzan eragiten ari diren gakoetan elkarrekin pentsatzen eta hausnartzen jartzea, ahalik eta modu barneratzaileenean». Norabide horretan partaidetzan esku hartzen duten aktore ezberdinen kezka eta ekarpenak jaso nahi dira, eta hutsuneetan eragiteko gomendio, ideia eta egitasmoak sortu.

Ondoren Itziar Alkortak, UIK-eko zuzendariak, lankidetzaren garrantzia azpimarratu eta unibertsitateak eta udako ikastaroek testuinguru berrian jakintza transmisore izatera ezin dutela beren burua mugatu eta ezagutza partekatua bultzatu, sustatu eta sakontzeko duten erronka mahai gaineratu du.

Bukatzeko, Itziar Calvok eta Ion Burgañañak hartu dute hitza Gizarte Kontseiluak jardunaldi hauen lanketan izan duen papera azaldu eta jardunaldiaren egitaraua aurkezteko. "Ahal: Parte hartu, nahia eta ezina" jardunaldiaren izenburuaren atzean dauden erronkak aurkeztu dituzte.

Egun osoko saioaren helburua parte hartu ahal izateko baldintzak zein izan behar duten arakatzeko da. Alde batetik, proiektu/prozesuen diseinuen egiturazkoak direnak:

- Zailtasunak dituzten giza kolektiboetako ahotsa eman hauen premiak eta proposamenak entzuteko
- Parte hartzeko arrakala nagusiak eta hauei nola aurre egin

Bestetik, instrumentalagoak diren ezaugarriak, ordain sariak, hobari eta partehartzea piztu edo motibatuzko moduak eta aukera ezberdinen inguruan hausnartzea

- Kanpoko zein bertako esperientzietatik ikasi
- Pizgarri aukera desberdinak esploratu eta aurki daitezkeen muga eta zailtasunak identifikatu.

Jardunaldiaren edukiei eutsi aurretik ariketa bat egin da pribilegioen inguruan. Izan ere AHAL ideia horren ertzetako bat badira pribilegioak. Pribilegioa kontzeptu erlatiboa da, termino absolutuetan definitzen zaila eta definitzeko modu bakarra pribilegio gehiago edo gutxiago dituzten pertsonak alderatzea da. Bi arrazoik motibatuta dute aurre ariketa hau: jardunaldia hasi aurretik norbanakoak bere pribilegioen inguruan hausnarketa egitea; eta bestetik, ariketaren emaitzak ikusten direnean elkarren arteko diferentziaz kontzientzia hartzea.



## MAHAI-INGURUA: PARTE HARTZEA BULTZATZEKO NOLA SORTU AUKERAK ETA BALDINTZAK

---

Mahai inguru formatuan 5 herritarren esperientziak partekatzeko tarte ireki da. Hizlarietako batek espazioa eta zenbat jende etorri den ikusi duenean bere parte hartzea bertan behera utzi behar izan du. Gutxien parte hartzen duten giza kolektiboehi ahotsa eman nahi izan zaie hauen premiak eta proposamenak entzuteko. Lau hizlariak honakoak izan dira:

- Erika Jaseth (28 urte, etxe-barruko langilea, Nicaraguakoa)
- Lurdes Galarza (jubilatua)
- Unax Otaegi (unibertsitateko ikaslea)
- Mohame Fadel (Saharako jatorria, gurgil-aulkian mugitzen da)

Lehenik eta behin hizlarietara beren eguneroko bizitzaren inguruko pintzelada batzuk eskatu zaizkie. Inoiz ezertan parte hartu baldin badute zertan eta esperientzia nolakoa izan den azaldu dute. Bigarrenik inoiz beren inguruan administrazioak deitutako partehartze ekimen edo prozesuren bat antzeman ote duten galdetu zaie eta ondoren zenbait euskarri erreal erakutsi zaizkie administrazio desberdinek deitutako prozesuekin. Komunikazio hauen inguruan zer ulertzen duten, interesgarriak ote zaizkien, gonbidatuak sentitzen al dira, gaiak interesgarriak ote zaizkien... galdetu zaie. Bukatzeko azken galdera hau luzatu zaie: Taldean (bilera, hausnarketa, dinamika) batean parte hartzeko zerk lagunduko luke? Zerk oztopatzen du gaur egun? Zer motibazioa? Zer gaia?

Azken galderen ideia nagusiak hauek izan dira:

- Mugimendua mugatua edo bestelako baldintza fisikoak dituzten pertsonentzat espazio bereziak eta egokiak prest edukitzea.
- Gai zehatzetarako deialdi bereziak talde zehatzei luzatu
- Babesa eta espazio zainduak parte hartzera ohituta ez dauden pertsonentzat
- Betiko bilera formalen formatuak ez du laguntzen
- Hobariak eman (ikasketa kredituak...)
- Kolektibo horiek dauden lekuetara joan, ez itxaron beraiek etortzera
- Lantzen edo proposatzen den hori aintzat hartu dadila. Espektatiben kudeaketa eta zintzotasuna
- Parte hartu nahi baina ezin horretan hiru aldagai garrantzitsu: denbora, ordutegia, hizkuntzak

Galdera erantzunen tarte egin beharrean talde handia 4 azpi-taldetan banatu da eta taldetxo bakoitza hizlari batekin aritu da 10 minutuz galderak egiteko, ideiak azpimarratzeko, solasaldirako aukera izan dute. 10 minutuak pasatzean hizlariak taldez aldatu dira eta dinamika errepikatu da.



## PONENTZIA: EGUNGO PARTAIDETZA AZTERGAI, ZEIN EZAUGARRI DITU MOMENTU HONETAN PARTAIDETZAK?

---

Helburua datuen bidez gako batzuk identifikatzeko edukia mahai gainean jartzea izan da.

Gipuzkoan udaletatik bultzatzen diren partehartze proiektuen hainbat datu aurkeztu dira (proiektu izaera, mekanismo motak, gaiak...). Lehenengo GFAko Herritarren Partaidetza Zerbitzuko teknikariek aurkeztu eta kokatu dituzte 2019 eta 2022ko Udaletarako diruz lagundu dituen proiektuen izaera eta ezaugarriak. Ondoren, aholkularitza desberdinek Gipuzkoako udalekin garatutako partaidetza proiektuen datuak aurkeztu dituzte irudiez lagunduta. Prometea aholkulari taldekoek ezin izan dute bertan aurrez aurre egon baina irudi bat bidali dute eta irudiko datuak aipatzeko aukera egon da.

Hizlariak:

- Olatz Dañobeitia eta Garbiñe Aramendi (HPZ)
- Mikel Zeberio (Emun)
- Nerea Zubia (Elhuyar)
- Susana Martinez (Aztiker)
- Mainer Eguzkitza (Farapi)

*(Ikus eranskinak)*



## TALDE HAUSNARKETA: ZEINTZUK IZAN DIRA IDEIA KLABEAK?

Zeintzuk izan dira ideia klabeak? Galdera horri erantzuteko 6 laguneko 9 taldeetan egin da lanketa.

Talde bakoitzak landu dituen ideia gakoak kartulinetan idazten joan dira, eta dinamizatzaile batek ideia guztiak antzekotasunen arabera multzokatu ditu. Hausnarketarako galderak honakoak izan dira:

- **Non daude zailtasunak?**
- **Non daude aukerak? Eta Nola eragin hori gerta dadin?**

NON DAUDE ZAILTASUNAK?	
Interes gaiak	Banakoen interesetara apelatu behar da herritarrek mobilizatzeko, eta, agian ondoren lortuko da interes kolektiboetara pasatzeko.
	Gaiak orokorrak dira
	Herritarrek eta administrazioek noraino dituzte interes berak?
	– Intereseko gaiak lortu behar dira. Denei ez zaizkigu gai berdinak interesatze. Interesa badaukat gaian parte hartzen dut, bestela ez. – Beti ez du jende guztiak parte hartu behar
	Zer partaidetza mota sustatzen du administrazioak? Askotan herritar multzo batek behar ez duena
	Gaia? <ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarrei interesatzen zaiena</li> <li>• Udalei interesatzen zaiena</li> </ul>
Administrazioari aipamenak	Gaur egun parte hartzea goitik beherakoa da. IRAULI EGIN BEHAR DA.
	Barrutia: herria
	Koordinazio falta: erakunde barruan (udal barruan)-(udala-GFA)-(udala-eragileak) muga asko: ordutegi, baldintza...
	Udala da gertukoena, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza urruti daude parte hartzeko
Ezagutza	Herritarrek ez daki nondik datorren parte hartzearen informazioa (administrazioa) GFA, Udala...
	– Jendeak ez daki zer egiten duten administrazioek eta bakoitzak zertan ematen duten beraien esfortzua. – Azaldu herritarrei zer egiten duten
	Gaiaren JAKINDURIA nahikoa
Emaita/inpaktua	Zailtasunak administrazioarenak dira eta ez herritarrenak
	Burokrazia bera da zailtasun nagusietako bat
	– Administrazioetik: zertarako egiten da proposamena? Zertarako parte-hartze prozesua? – Zintzotasun falta; politikarien ikuspuntua, beldurrak... – Prozesuek infrastrukturak behar dituzte, baliabideak, zintzotasuna...
	Zerbait eraginkorrera iritsiko dela sinesgarritasun-maila
	Partehartzeak: "prozesuaren aitortza" → Kontuak ematea. Baloratu



	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Parte-hartze prozesuei zer etekin ateratzen diegu?</li> <li>- Espektatibak betetzen dira?</li> <li>- Parte hartzaileek emaitzak ikusi behar dituzte</li> </ul>
	Deskonfiantza, emaitzekin eta gauzatutako proiektuen azalpenekin saieztu egiten dira. Konfiantza lortzen da azalpenak ematen prozesuaren emaitzen inguruan.
	Partaidetzan hausnartutakoaren eragina ez ikustea. Ondorioak ez ikustea
<b>Aniztasuna</b>	Jakitea nork ez duen parte hartzen? Nola iritsi horiengana?
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kolektibo jakin batzuek behar espezifikoak dituzte (errealitate konplexua dutenak) eta erantzun espezifikoak izan behar dute.</li> <li>- Gazteekin, bereziki, ez dugu jakin, baina, oro har, ez gara gai</li> </ul>
	Aniztasuna: gaur egun aniztasun "zehatz bati" baldintzatuta dago. Kudeatzeko zailtasunak (fisikoki, kulturalki)
	Beti leku beretik deitzea parte hartzea. Udaletan nor dago? Txuria, klase konkretu batekoa. Hortik deitzen ditugu
	Daukagun eskema ideologikoak ez du aniztasunaren kudeaketa ahalbidetzen
	Partaidetza dauden artean sustatzen da, ez daudenak deitzeko zailtasunak ditu administrazioak, baita horeingana fokoa eta bideak ere.
<b>Metodologia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarrizketa: ez jakitea nola iritzi parte-hartzaileengana.</li> <li>- Elkarrizketa oso abersagarria</li> <li>- Saio kolaboratiboak batzuetan kaxkarrak</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erantzunen konbinazioa: egokitzea.</li> <li>- Tresna asko daude -baina beti berdinak datoz-. Nola iritsi gainerakoengana?</li> <li>- Eskubideak ditugu zergak ordaintzen ditugulako</li> </ul>
<b>Hizkuntza</b>	Hizkuntza zailtasuna da. Ikaskuntza sustatzea: doan/librea/ikastea
<b>Elkartegintza + beste espazio batzuk</b>	Herriko elkarteekin gutxi hitz egiten da eta elkarte bidez perstona desberdinak erakartzea
	Desberdintasuna administrazioak partaidetze prozesua sortzen/sustatzen duenean edota herritarren partetik sustatzen diren prozesuen artean. Adibidez: baliabideak...
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Guregana etortzea eskatzen dugu, ez dugu kontutan hartzen jadanik gertatzen ari dena.</li> <li>- Non daude gune naturalak</li> </ul>
<b>P.H. Eskubidea</b>	Ez dugu partaidetza eskubidea oinarrizko eskubide gisa aitortzen
	Elkartegintzatik kanpo dauden hiritarrek ez dituzte bere eskubideen ezagutzarik/ohiturarik, nola eman aukera hori?
	Desberdindu beharra: zailtasuna ≠ ezintasuna
<b>Baliabideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Partaidetza: "eman kreditu", "eman X", eta inzentiboak. Eztabaida hor dago.</li> <li>- Badaude inzentiboak: liburua, emantzipatzeko zerbait, "brujula bat", sinbolo bat</li> </ul>
	Deialdiak, esku-orrien edukiak... dana korrikan eta arineketan egiten bada... eragina dauka emaitzetan.
	Baliabide falta: materiala eta pertsonak

NON DAUDE AUKERAK? ETA NOLA ERAGIN HORI GERTA DADIN?	
<b>Balioa ahalduntzea</b>	<p>Boterea birbanatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zer behar duzu?</li> <li>- premia horiek kolektiboak dira</li> <li>- zertan inplikatzeko prest zauden</li> </ul>
	<p>Partaidetzak, gaiaz gain, prozesu ahalduntzaileak izan daitezke eta hau aukera da. Prozesuek sareak eta jakintza lortzeko/sortzeko balio izateko aukera ematen dute.</p>
	<p>Balore berdina eman udal arkitektoari eta herritar xumeari. Ahots guztiek balio eta botere berdinak dituzte</p>
	<p>Administrazioak hitz egin behar du eragileek eta pertsonak hitz egiteko moduan</p>
	<p>Aukerak: baloratu prozesuan lortutakoa eta parte hartzea baloratu</p>
	<p>Administrazioak inpaktu-adierazleak balora ditzala: erlaziozkoak, komunitatea sortzekoak...</p>
	<p>Prozesuen ebaluazioan, transformazioa, sareak eta harremanak ere txertatzea lagungarria izango litzateke</p>
	<p>Herri batzuetan "Oñati" sortutako parte-hartze espazio egonkorak txikitatik gauzatzen dira eta etorkizunera begira ikusi egiten da prozesuen emaitzetan.</p>
	<p>ENTZUN (entzutera ikasi) Ez soilik erantzuteko</p>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pedagogia egin</li> <li>- Norbanakoa aurrez-aurre artatu eta entzun, entzun, entzun</li> <li>- Ondoren erantzun</li> <li>- Herritarrentzako integrazio ikastaroak</li> <li>- Hizkuntza, arauak, ohiturak gizarte mugimendu, administrazio egitura, gizarte gaiak...</li> </ul>
<b>Baliagarritasuna</b>	<p>Udalek partehartze beharra sortu behar dute herritarrengan</p>
	<p>Administrazioa non kokatzen den eta benetan zertarako dagoen esatea. Zintzotasuna eta gardentasuna</p>
	<p>Zer irabazten du edo zer etekina ateratzen du herritarrek parte hartuz?</p>
<b>Baliabideak</b>	<p>Nola lortu parte hartzaileak? Nola lortzen ditugu? Norbanakoaren egoera pertsonalen arabera bideak identifikatu behar dira. "Baliabideak". Prozesuak estandarrak ez izatea.</p>
	<p>Deialdi desberdinek baliabide maila desberdina eskatzen dute kolektiboak eroso sentitu ahal izateko parte-hartzean.</p>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Administrazioak beharrezko bitartekoak jarri behar ditu herritarrekin bat egiteko eta deskontentoa saihesteko herritarrekin.</li> <li>- Espazio aproposak bermatu herritarren partaidetza errazteko.</li> </ul>
<b>Begirada aldaketa</b>	<p>Aukerak gerturatu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udalak aldatzea begirada: publiko = komunitarioa.</li> <li>- "Udalak pentsatzea herritarrek behar dituela"</li> <li>- "Amankomunean lan egiteko beharra"</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herritarrek elkar topatzeko ekipamenduak sustatu,</li> <li>- Loturak sor daitezzen.</li> <li>- Espazio horietan formatutako pertsonak eta tokian tokikoak izan daitezela</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarteen denborak baloratzea eta haiei begiratzea.</li> <li>- Bere ordutegietara egokitzea.</li> <li>- Malgutasuna</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikuspegi publiko-komunitarioa indartzea.</li> </ul>



	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gakoa ez dira zerbitzu gehiago, baizik eta sareak sortzea. Herritarra kontsumitzaile gisa eta administrazio publikoa hornitzaile gisa hierarkiarekin haustea</li> </ul>	
	Dagoen aniztasuna aitortzea eta kudeatzea	
<b>Kanalak. Komunikazioa</b>	Kanal eta komunikazio berria behar du administrazioak	
	Komunikazio era aldatu beharko litzateke, marketing gehiago	
	Hizkuntza tekniko deuseztatu behar da. Hizkuntza errazeko gidalerroak erabili herritarrak prozesuaren nondik norakoa ulertzeko	
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bilera irekiak ez egin! Betikoak joaten dira "cafe taldea"</li> <li>- berrikuntza irekiko ingurunea. Askotariko profilak izatea</li> <li>- "Zozketa". Prozesuak: Donostia/Tolosa</li> </ul>	
	Komunikazioa <ul style="list-style-type: none"> <li>- berezitasuna</li> <li>- hainbat zentzu sartu (5)</li> <li>- sinplea</li> </ul>	
	Komunikazioa da garrantzitsua <ul style="list-style-type: none"> <li>- Modua</li> <li>- Kanala</li> </ul>	
<b>Lidergotzak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aliatuak, beren komunitateko erreferenteak diren pertsonak bilatu behar dituzte, laguntza egon dadin.</li> <li>- Bidelaguntza parte hartzailea herriko erreferente naturalen bitartez</li> </ul>	
	Bilatu lidergo naturalak	
	Administrazio publikoaren eta herritarren arteko zubi horiek bilatzea	
	Zabaldu partaidetza eragileak direnen sarera Gipuzkoan	
	Erakunde zentrala: partaidetza eta komunitate-bizitza artikulatzen dituen	
	Kolektibo desberdinekin lan zehatza edo berezia landu aniztasuna bermatzeko	
<b>Kanal zehaltzak</b>	Lehendik dagoenaren eta funtzionatzen duenaren mapa egitea	
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kexa/iradokizun buzoia</li> <li>- "erantzuten da betik"</li> </ul>	
	Administrazioak aitortu behar die herritarrei hauen iradokizun edo kexu bat partaidetza ere badela	
	Parte hartzea legez arautzea, aitortza, laneko baimenak, dieta ordainduak... (Hauteskunde mahaiko-kide izatea tokatzen denean bezala)	
	Txikitatik ikasitako parte-hartze prozesuak nagusitan naturaltasunez egiten dira	
<b>Metodologiak</b>	Esfortzu handia eskatzen zaio herritarrari administrazioetik. Administrazioak eredu izan behar du herritarrentzat eta kanalak prestatu behar ditu herritarrak entzuteko	
	Metodoa: aniztasuna aintzat hartuko duen metodoa	
	Orain arte erabilitako metodoak irauli	
	Metodologia eta deialdia: <ul style="list-style-type: none"> <li>-Aniztasuna. Jaso behar duenari begiratu, egokitu</li> <li>-Irakurketa erraza + bisualak</li> <li>-Bide berriak bilatu gaurko errealitatera</li> </ul>	
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Metodologia anitza beharko genuke eta ez daude aukera anitzak.</li> <li>- Prozesuetan "betaurreko" ezberdinak jantzi behar dira</li> </ul>	
	Espazio egokiak eta atseginak sortu jende desberdinak parte hartzeko	
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Partehartzeko formatuak eta metodologiak zainduz.</li> <li>- Partehartzaileen gaitasunak, aniztasunak eta konfiantza giroa sortzea</li> </ul>	
	Mezu "buloak" saihesteko bideratu behar dira partaidetzako espazio seguruak	
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herriak egiten dituen harrerak</li> <li>- Parte hartze prozesuetan, partehartzaileari ematen zaion babesa eta ZAINZTA</li> </ul>	

<b>Administrazioaren Rola/papera</b>	– Administrazio publikoaren bideratzaile rola indartzea.
	– Komunitatean gertatzen ari denari oztoporik ez jartzea. Ematen ari dena sustatzea eta ez administrazioetik zerbait sortzen hastea, komunitatean erratuta egongo ez delako
	Komunitatean dagoena ez fagortzea. Hori sustatzea eta administrazio-trabarik ez jartzea
	– Prozesuak erraztu
	– Desburokratizatu
<b>Gaiak</b>	– Krisia = berrikusi
	– Politika instituzionala. Sistema berrikusi
	Administrazioak eragileei ezarritako eginbehar horiek berak eragileentzako interesekoak izatea da bilatu beharrekoa
	Udalak, galdetzea zeintzuk diren herritarrei benetan inporta zaizkien gaiak
	– Gai publiko desberdinei heltzeko bide edo bitarteko desberdinak behar dira.
	– Baliabideak moldatu publikoaren arabera
	Burokrazia izan daiteke prozesuetan jorrazteko gaietako bat
Administrazioak partaidetzako gaiak ere sustatu behar ditu, goitik behera ere bai	
Gaiak askotarikoak eta zorrotzak formetan. Ñabardurei kasu egin	
– Gaikako egiturek ez ditzatela baztertu herritarren beharrak/kezkak.	
– Aniztasuna jaso dezala	

## PLENARIOA: TALDE HAUSNARKETAREN MURALA

Hausnarketan atera diren ideiak muralean kokatu dira erraztaile baten laguntzaz. Bazkal ondoren eta arratsaldeko saioari ekin aurretik, erraztaileak muralean kokatu denaren itzulketak bat egin du jasotako kartulinen edukiak jendaurrean partekatuz.



## BAZKAL AURREKO AZKEN ARIKETA

---

Bazkaltzera joan aurretik arratsaldean landu den gaia kokatzen joateko txartela batzuk banatu dira, bat partehartzaile bakoitzeko.

Arbelean izenburu hauetako baten azpian kokatu du bakoitzak egokitu zaion txartela, bere iritziarekin bat egiten zuen horretan. Izenburuak hauek izan dira: "egingarria", "ezinezkoa" eta "lantzea merezi du".

Txartelek hau zioten:

- *Lantokietan ordu baimenak eman partaidetza prozesu/ ekimen batean parte hartzeko*
- *Kultura bonoak eman partaidetza prozesu/ekimen batean parte hartzeagatik*
- *Herriko saltokietarako bonoak eman partaidetza prozesu/ekimen batean parte hartzeagatik*
- *Kiroldegirako tasan bonifikazioa eman partaidetza prozesu/ekimen batean parte hartzeagatik*
- *Partaidetza prozesu/ekimen batean parte hartzeagatik errenta aitor-penean onura fiskalak izatea*
- *Partaidetza prozesu/ekimen batean parte hartzeagatik diru ordain-saria jaso*
- *Partaidetza prozesu/ekimen batean parte hartzeagatik udal tasetan gutxiago ordaindu*
- *Partaidetza prozesu/ekimen batean parte hartzeagatik diru ordain-saria jaso*
- *Partaidetza prozesu/ekimen batean parte hartzeagatik formakuntzarako bonoak eman*
- *Partaidetza prozesu/ekimen batean parte hartzeagatik produktuen saski bat eman*

Azpitarratzekoa da txartel guztiak izenburu guztietan kokatuak izan direla.

## PONENTZIA: AHAL IZATEKO, BALDINTZAK ETA FORMULAK. PARTAIDETZA ERRAZTEKO, BERMATZEKO BALDINTZAK-FORMULAK.

---

Hizlaria:

- Irene Alonso Toucido (Federation for Innovation in Democracy – Europe)

Parte hartu ahal izateko hobari eta modu ezberdinen inguruan dauden aukera eta arriskuak izan ditu hizpide Irenek, horretarako kanpoko zenbait esperientzia ekarri ditu.

*(Ikus ppt eranskina.)*

## MAHAI-INGURUA ETA TALDE HAUSNARKETA: AHAL IZATEKO, BALDINTZAK ETA FORMULAK. PARTAIDETZA ERRAZTEKO, BERMATZEKO BALDINTZAK ETA-FORMULEN AUKERAK, ARRISKUAK ETA KONTRAESANAK.

---

Irene Alonso Toucidoren ponentziaren ondoren bertako esperientziei egin zaie lekua. Garikoitz Lekuonak grabatuta utzi duen testigantza eta Antxon Gallegoren gogoetak izan dira abiapuntua bertaratutako guztiekin solasaldi ireki bati lekua emateko parte-hartzea piztu edo bultzatzeko hobariek joka dezaketen paperaren inguruan.

Hizlariak:

- Garikoitz Lekuona (Tolosako udaleko Partaidetza eta Gobernantza Saileko arduradun teknikoa)
- Antxon Gallego (Ibatuz)

Garikoitz Lekuonak Ausaz aukeratutako Herritarren Batzarrearen esperientzia ekarri du. Zozketaz hautatu ziren 32 herritar eta hasieratik komunikatu zitzairen 440 €ko ordain-saria jasoko zutela 5 larunbatetan egingo zuten lanketaren konpentsazio gisa. Esperientzia honek bazuen metodologia zehatz bat atzetik eta ordainketa metodologia beraren parte zen.

Esperientziaren balorazioa maila desberdinetan egin du:

- Zailtasun administratiboak. Marko baten falta azpimarratu du. Kasu honetan Foru Aldundia ere horrelako prozesu deliberatibo bat bultzatzen ari zenez haiek bideratutako bide beretik egitea ahalbidetu die. Baina bide honek garapen maila bat beharko luke erabili nahi baldin bada bermeak izateko.
- Balorazio positiboa egiten du ordain-sariez, bestela behar bada parte hartuko ez zuten herritarrak eraman dituelako prozesura. Baina pizgarri edo "zubigintza" tresna bezala definitu ditu, prozesuaren bukaeran parte hartu dutenentzat hartzen duten garrantzia ez baita determinantea, herritarrek beste zenbait "irabaziei" garrantzia handiagoa ematen diete eta (ahaldundu egin dira, komunitate baten parte sentitu dira).

Bukatzeko, ondoren solasaldian eztabaidagai izan diren zenbait ideia ere mahaigaineratu ditu Garikoitzek: partehartzailearen estatusa garatzearen beharra, ordain-sariekin sortzen dituzten kontraesanak, etab.

Antxon Gallegok berak ezagututako beste esperientzia batzuk ere ekarri ditu jardunaldira, non diruzko ordain-saririk ez baina bestelako hobariek eskaini izan zaizkie parte hartzaileei. Antxonek ere gaiak dituen ertz desberdinak izan ditu hizpide: partehartzea eskubide baina baita ere betebeharrak gisa; hobariek tartean baldin badaude, zer esijitu ahal zaio parte hartzen duenari...

Gaiak eztabaida ekarri du. Honako puntuak izan dira hizpide, besteak beste. Erantzunak baino, galderak eta kezkek plazaratu dira:

- Partehartzea eskubide bezala, baina baita ere bete behar bezala
- Hobariek
  - Konpentsaziorako tresnak izan daitezke?
  - Lagungarria izan daiteke baina, determinantea?

- Herritar parte hartzailearen estatusa arautu beharko litzateke? Zer eskubide? Zer betebehar? Zer konpentsazio? Zer aldatu beharko luke administrazioak?
- Aniztasuna "erosteko" prest?

Galderez gain etorkizunerako zenbait erronka ere aipatu eta partekatu dira:

- Esperimentatu dadila
- Beste prozesuetatik ikasi
- Egokitu (eta huts egin ere horrela behar duenean)
- Administrazioak ere gogoeta egin dezala zein kasuetan eman beharko lirateke panel deliberatiboak

## ONDORIO NAGUSIAK ETA ITXIERA

Jardunaldian landutako edukien laburpena eta itzulketa Pernan Goñi marrazkilariak egin du. Pernan Miramar Jauregian egon da jardunaldi osoan bertan gertatzen zen guztia marrazki bidez jasotzen. Jardunaldiaren amaieran egindako marrazkiez lagunduta eguneko lanaren laburpena egin du.

